

# Kulturaren Plan Estrategiko berri bat Nafarroarako **2024-2028**

Arte eszenikoen eta musikaren mahaian parte  
hartzeko dutenentzako  
**lan-koaderno**

## Aurkibidea

1.- Aurkezpena	3
2.- Nola egingo dugu lan saioan?	4
<b>Lehen Zatia</b>	
3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk	5
3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik arte eszenikoei musikari dagokienez?	5
3.2.- Nafarroako arte eszenikoen eta musikaren egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia	10
3.3.- Lehenengo gogoetak eta erronkak arte eszenikoen eta musikaren eremuan	15
<b>Bigarren zatia</b>	
4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen	17

## 1.- Aurkezpena

Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Foru Komunitaterako Kulturaren Plan Estrategiko bat (NKPE) egitea sustatu, koordinatu eta kudeatzen du datozen urteetarako (2024-2028).

### Zein

#### helburu lortu nahi da?

Ekintza Plan bat eraikitzea da helburua, aurreko Planaren (2017-2023) ebaluazioan, egungo egoeraren diagnostikoan eta sektore profesionalaren eta herritarren ekarpenetan oinarrituta, Nafarroako kulturaren arloko jarduerak orientatzeko eta balioesteko tresna gisa balioko duena.

### Nola

#### eratzten da Plan hau?

4 lan-fase zehaztu dira:

I. eta II. faseetan, 2017-2023ko NKPE-aren ebaluazioa eta Nafarroako kultura- eta sormen-sektorearen egungo egoeraren diagnostikoa garatu dira.

III. fasean, herritarrekin eta kultura- eta sormen-eragileekin partaidetza-prozesuari heltzen zaio, zenbait lan-mahai antolatuz.

Azken fasean 2024-2028 NKPEa egingo da.

### Lurralde mahaien

#### helburua

Parte-hartze prozesua 2023ko azaroaren 6an hasiko da 15 saio sektorial, lurraldekoak eta zeharkakoak eginez hainbat herritan. Mahai sektorialak Iruñean egingo dira, eta gai hauek jorratuko dituzte: museoak; ondarea; arte plastikoak eta ikusizkoak; ikus-entzunezkoen industria/industria digitala; artxiiboak eta dokumentu-ondarea; liburuak eta liburutegiak; arte eszenikoak eta musika.

Kulturaren eta sormenaren arloko profesionalen/eragileen eta horien azpistema guztien beharrak/zailtasunak/ahuleziak identifikatzea da helburua, eta 2024-2028 NKPE-aren estrategiak eta jarduera-ildoak eraikitzeko balioko dieten ekintza-proposamenak ezartzea. Mahai hauek interesa duen edozein kultur eragileri irekiak dira, eta izena eman ahal izango dute beren hausnarketak eta proposamenak partipianavarra webgunearen bitartez adierazteko.

## 2.- Nola egingo dugu lan saioan?

Nafarroako arte eszenikoen eta musikaren beharrian eta lehentasunei buruz modu partekatuan hausnartzeko eta behar horiei erantzuteko gure ideiak emateko aukera izango dugu. Saioaren gidoia honako hau izango da:

Edukia	Arduraduna
<b>Lehen zatia</b>	
Ongi etorria NKPE saioaren helburuak	Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia
Testuinguru orokor laburra: aurreko planaren ebaluazioaren eta Nafarroako arte eszenikoen eta musikaren egungo egoeraren diagnostikoaren emaitzak; hasierako gogoetak eta erronkak	Ikerpartners
<b>Bigarren zatia</b>	
<b>1. Lan dinamika:</b> Kulturaren balio-katea kontuan hartuta, zer behar, zailtasun eta ahulezia aurkitzen ditugu Nafarroako arte eszenikoen eta musikaren eremuan? Dimentsio bakoitzean zailtasun eta ahulezia horiek identifikatzea eta lehenestea da helburua. Metodologia: Banakako gogoeta laburra + Taldekako gogoeta	Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu
<b>2. Lan dinamika:</b> NKPE 2024-2028 berrirako IDEIEN MAPA bat eraiki Nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei? Nafarroan arte eszenikoen eta musikaren eremua garatzeko ideiak eta ekarpenak Metodologia: Taldekako lana + Taldekako gogoeta	Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu
<b>Saioaren amaiera</b>	Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia

## LEHENENGO ZATIA

### 3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk

#### 3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik arte eszenikoei eta musikari dagokienez?

##### 1. Pixka bat handitu da arte eszenikoetara eta musikara bideratutako gastua

2017 – 2022 urteen artean, % 3,8 igo da, eta 2019an jo du goia (6,6 milioi euroko gastua). 37 milioi euroko gastuarekin aldi osoan zehar, Kultur Ekintza + KSlen arloko guztizko gastuaren % 30 da, eta kulturako guztizko gastuaren % 15.

Kulturan gauzatutako gastuaren bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

<b>Gastua nora bideratzen den:</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>
<b>Kulturako Zerbitzu Nagusiak</b>	<b>4.166.832</b>	<b>4.341.317</b>	<b>4.599.146</b>	<b>4.798.350</b>	<b>4.803.888</b>	<b>5.045.239</b>
<b>ONDAREA</b>	<b>13.892.242</b>	<b>16.750.190</b>	<b>17.334.227</b>	<b>17.484.266</b>	<b>18.465.880</b>	<b>19.857.797</b>
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	3.425.546	4.892.517	5.189.641	4.696.516	4.692.644	4.752.923
Liburutegiak	4.505.870	4.829.700	5.082.759	5.305.996	5.525.933	6.134.272
Museoak	3.794.190	4.638.280	4.525.953	4.918.852	5.349.750	5.784.732
Artxiboak	2.166.636	2.389.693	2.535.874	2.562.902	2.897.553	3.185.870
<b>KULTURA-EKINTZA + KSI</b>	<b>17.844.054</b>	<b>18.602.440</b>	<b>21.549.039</b>	<b>20.860.151</b>	<b>22.549.949</b>	<b>25.334.638</b>
Musika, dantza, antzerkia, zinematografia eta beste arte eszeniko batzuk	6.317.970	5.910.998	6.565.999	5.950.219	6.069.755	6.556.6133
Liburuaren sustapena eta kultura-argitalpenak	48.502	45.636	47.835	295.285	323.052	337.556
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	11.477.582	12.645.806	14.935.205	14.614.647	16.157.142	18.440.469
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>35.903.128</b>	<b>39.693.947</b>	<b>43.482.412</b>	<b>43.142.767</b>	<b>45.819.717</b>	<b>50.237.674</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

## 2. Arte eszenikoetarako eta musikarako transferentzia arruntak % 6,5 gehitu dira 2017 eta 2022 bitartean

2017-2022 aldian egindako transferentzia arrunt guztien % 87 Kultur Ekintzara + KSletara bideratu da, eta ehuneko horretatik % 43,2 arte eszenikoei eta musikari dagokie. Kultur Ekintzaren eta KSlen esparruan, garrantzitsuak dira Kultura-sustapenerako eta kultura-kooperaziorako transferentzia arruntak, 47 milioi euro inguru biltzen baitituzte 2017-2022 aldian.

Transferentzia arrunten bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

<b>Gastua nora bideratzen den:</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>	<b>2017-2022</b>
<b>Kulturako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak</b>			<b>13.811</b>				<b>13.811</b>
<b>ONDAREA</b>	<b>1.575.599</b>	<b>1.697.050</b>	<b>1.739.387</b>	<b>1.907.067</b>	<b>2.139.815</b>	<b>2.901.928</b>	<b>11.960.846</b>
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	174.539	104.469	116.835	120.031	143.075	236.471	895.420
Liburutegiak			14.161	97		21.079	35.337
Museoak	1.485.903	1.570.472	1.594.400	1.761.613	1.918.031	2.616.629	10.947.048
Artxiboak	15.157	22.109	13.991	25.326	78.709	27.749	183.041
<b>KULTURA-EKINTZA + KSI</b>	<b>10.949.277</b>	<b>11.774.022</b>	<b>13.793.963</b>	<b>14.170.719</b>	<b>15.241.904</b>	<b>17.548.337</b>	<b>83.478.222</b>
Musika, dantza, antzerkia, zinematografia eta beste arte eszeniko batzuk	5.909.381	5.738.298	6.363.395	5.950.219	5.813.667	6.291.755	36.033.715
Liburuaren sustapena eta kultura-argitalpenak				140.149	142.538	146.786	429.473
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	5.039.896	6.035.724	7.430.568	8.080.351	9.285.699	11.109.796	46.982.034
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>12.624.876</b>	<b>13.471.072</b>	<b>15.547.161</b>	<b>16.077.786</b>	<b>17.381.719</b>	<b>20.450.265</b>	<b>95.552.879</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

### 3. Inbertsio txikiagoa kultur ekintzan + KSletan

2017-2022 aldian Inbertsioetara bideratutako 21.436.621 milioi euroetatik, egindako inbertsio guztien % 2,1 kultura-ekintzara + KSletara bideratu da.

Kultura-ekintzako inbertsioen eta KSlen bilakaera desberdina izan da aldi horretan, 2017an lortutako gehieneko balioarekin, eta txikiena 2022an, 2017an baino % 49 gutxiago.

Inbertsioen bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

<b>Gastua nora bideratzen den:</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>	<b>2017-2022</b>
<b>Kulturako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak</b>	<b>36.405</b>	<b>78.000</b>	<b>30.246</b>	<b>52.585</b>	<b>62.888</b>	<b>62.636</b>	<b>322.760</b>
<b>ONDAREA</b>	<b>1.917.716</b>	<b>3.489.383</b>	<b>3.460.848</b>	<b>3.621.626</b>	<b>4.178.147</b>	<b>3.987.451</b>	<b>20.655.171</b>
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	661.091	1.426.188	1.427.274	1.506.041	1.664.877	1.763.205	8.448.676
Liburutegiak	522.803	535.941	691.109	726.934	818.676	795.563	4.091.026
Museoak	224.877	851.296	523.902	584.843	704.064	390.362	3.279.344
Artxiboak	508.945	675.958	818.563	803.808	990.530	1.038.321	4.836.125
<b>KULTURA-EKINTZA + KSI</b>	<b>103.050</b>	<b>46.044</b>	<b>63.363</b>	<b>101.498</b>	<b>92.554</b>	<b>52.181</b>	<b>458.690</b>
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	103.050	46.044	63.363	101.498	92.554	52.181	458.690
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>2.057.171</b>	<b>3.613.427</b>	<b>3.554.457</b>	<b>3.775.709</b>	<b>4.333.589</b>	<b>4.102.268</b>	<b>21.436.621</b>

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

#### 4. Next Generation funtsak

Nafarroa Suspertzeko Planaren esparruan Next Generation Funtsekin finantzaturako proiektuen artean, arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak modernizatzeko eta modu iraunkorrean kudeatzeko partida bat dago, 700.000 euro inguruko aurreikusitako finantzaketarekin.

#### 5. 2017-2023 NKPE-aren ekintzen aurrerapen nabarmena arte eszenikoen eta musikaren esparruan

NKPEaren ekintza-ildoetako bat, 9. ardatzean, kultura-sektoreei eta balio-kateari buruzkoa, kultura-ekintza eta haren balio-katea garatzea zen. Helburu hori lortu da, hain zuzen ere, eremu horretan laguntzak zabaltzeko eta aurrekontu-zuzkidura nabarmen handitu delako.

- Baluarte Fundazioarekin eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin lankidetzan, programazio artistikorako eta hainbat programa garatzeko finantzaketa indartu da (Erriberriko Antzerki Jaialdia, Lizarrako Antzinako Musika Jaialdia, etab.), eta 34,6 milioi euro bideratu dira transferentzia arruntetarako 2017-2022 aldian.
- 2022tik aurrera, dirulaguntzen lerro berri bat ezarri da, Nafarroako hiriguneak ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko. Ildo horrek 724.000 euroko zuzkidura du 2023an.
- Nafarroako Antzokien Sarearen finantzaketa indartu da. Sare hori espazio eszeniko bat duten 35 udalek osatzen dute.



- Arte Eszenikoak eta Musikalak Bultzatzeko Planaren esparruan, ekoizpenera eta merkaturatzera bideratutako laguntza-ildoak indartu dira, eta modu nabarmenean handitu dira enpresei eta profesionali ekoizpenerako ematen zaizkien laguntzak, bai eta arte eszenikoetako ekitaldi, jaialdi eta lehiaketetarako ematen direnak ere (Artem Pro eta Artem Exporta). Horien aurrekontu-zuzkidura 454.000 eurokoa da 2023rako, eta 235.000 eurokoa, berriz, 2018rako.
- Arte Eszenikoen eta Musikalen Hirugarren Sektoreko Erakundeentzako (ARTEM -50K eta 50K+ 2020ra arte, eta Nafarroako Arte Eszenikoen eta Musikalen Hirugarren Sektoreko Erakundeentzako diru-laguntza 2021etik aurrera) dirulaguntzen aurrekontu-egonkortasunari eusten zaio, milioi bat euro inguruko urteko esleipenarekin.
- Mantendu egiten dira Nafarroako Kultura Sektorearen Prestakuntza eta Profesionalizazio programak. Horien artean, nabarmentzekoak dira Nafarroako Antzerki Eskolaren dirulaguntza izenduna (265.000 euro 2018tik, eta 75.000 euro gehiago 2023an) edo IDEIA programa. Programa horren helburua kultura hedatzea eta zabaltzea da, eta finantzaketa-maila egonkorra mantendu du.

### 3.2.- Nafarroako arte eszenikoen eta musikaren egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia

Nafarroako Foru Komunitateko antzerki eta dantza konpainien kopuruak gora egin du 2017tik ( % 17,2 eta % 16,1, hurrenez hurren). Bestalde, antzerki-espazio eszeniko egonkorak kopuru berean mantendu dira 2019tik.

Antzerki eta Dantza Konpainien kopuruaren bilakaera Nafarroan. 2017-2022

Konpainiak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Antzerki konpainiak	64	67	70	72	74	75
Dantza Konpainiak	31	33	36	36	36	36

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala. Arte eszenikoen baliabideen datu-baseen ustiapen estatistikoa. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Nafarroako antzerki-espazio eszeniko egonkorren bilakaera, titulartasunaren arabera. 2017-2022

Espazio eszenikoen titulartasuna	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Publikoa	22	22	25	25	26	26
Pribatua	5	5	5	5	5	5
Mistoa edo ez dago jasota	1	1	1	1	0	0
100.000 biztanleko	4,4	4,3	4,8	4,7	4,7	4,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>28</b>	<b>28</b>	<b>31</b>	<b>31</b>	<b>31</b>	<b>31</b>

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala. Arte eszenikoen baliabideen datu-baseen ustiapen estatistikoa. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Antzerki eta Dantza Jaialdien bilakaera Nafarroan. 2017-2022

Jaialdiak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Antzerki jaialdiak	14	13	14	15	16	17
Dantza jaialdiak	5	7	8	8	8	8

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala. Arte eszenikoen baliabideen datu-baseen ustiapen estatistikoa. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Nafarroan interpretazioan aritzen diren musika-entitateen kopurua antzekoa izan da 2017-2022 aldian, eta abesbatzen kopurua pixka bat igo da. Bestalde, Nafarroako kontzertu-aretoek nabarmen egin dute gora 2021etik aurrera.

Nafarroan interpretazioan aritzen diren musika-erakundeen kopuruaren bilakaera, tipologiaren arabera. 2017-2022

Musika erakundeak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ganbera multzoak	3	3	3	4	4	4
Talde lirikoak	1	1	1	1	1	1
Bandak	41	40	40	40	41	40
Koruak	82	82	82	82	82	99
Ganbera orkestrak	0	1	1	1	1	1
Orkestra sinfonikoak	3	3	3	3	3	3

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala. Arte eszenikoen baliabideen datu-baseen ustiapen estatistikoa. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Kontzertu-aretoen kopuruaren bilakaera Nafarroan. 2017-2022

Kontzertu aretoak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kontzertu areto kopurua	7	8	8	8	33	33
100.000 biztanleko	1,1	1,2	1,2	1,2	5,0	5,0

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala. Arte eszenikoen baliabideen datu-baseen ustiapen estatistikoa. Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Arte eszenikoetako eta musikako enpleguaren % 58 erregimen orokorrean dago, eta % 38 emakumeak dira. Bilakaerari dagokionez, autonomoen erregimeneko enplegua gehiago hazi da ( % 28 2017koaren aldean eta % 17 erregimen orokorraren kasuan).

Erregimen orokorreko afiliazioen eta autonomoen kopurua, Nafarroako Gizarte Segurantzaren arabera (2022ko abenduaren 31n), arte eszenikoetan

	Autonomoak	Erregimen orokorra	Guztira	% Emakumeak
Arte eszenikoak	258	359	<b>617</b>	% 38,2

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, GSDOk lagatako Gizarte Segurantzako afiliazioari buruzko datuetan oinarrituta

Erregimen orokorreko afiliazioaren eta autonomoen bilakaera, Nafarroako arte eszenikoetako Gizarte Segurantzaren arabera. 2017-2022 (urte bakoitzeko abenduaren 31n)

Afiliazioak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Erregimen orokorreko afiliazioak	308	312	370	306	368	359
Autonomoen afiliazioak	201	228	240	233	238	258
<b>Guztira</b>	<b>509</b>	<b>540</b>	<b>610</b>	<b>539</b>	<b>606</b>	<b>617</b>
<b>Emakumeen % guztiarekiko</b>	<b>% 34,0</b>	<b>% 35,0</b>	<b>% 38,0</b>	<b>% 36,5</b>	<b>% 37,1</b>	<b>% 38,2</b>

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, GSDOk lagatako Gizarte Segurantzako afiliazioari buruzko datuetan oinarrituta.

Kultura-ohiturak eta -praktikak. Arte eszenikoetako ikuskizunetara joaten diren biztanleen ehunekoak behera egin du Nafarroan.

Nafarroako biztanleek adierazi dituzten arte eszenikoetako edo musikako ikuskizunetara ez joateko arrazoi nagusien artean, interes falta nabarmentzen da, eta, ondoren, urrutitik, denbora falta eta eskaintza urria.

Nafarroan azken urtean arte eszenikoen eta musikaren ikuskizunetara joan diren pertsonen ehunekoaren bilakaera.

2014-2022

Ikuskizunak	2014-2015	2018-2019	2021-2022
Antzerkia	31,3	26,5	7,2
Zirkua	13,1	6,0	1,4
Dantza	7,6	6,5	3,0
Musika	--	--	13,7

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak

Nafarroako arte eszenikoetako ikuskizunetara joateko ohituraren arabeko pertsonen ehunekoa. 2021-2022

Bertaratzea	Azken urtea	Azken 3 hilabeteak	3 hilabete eta urtebete bitartean	Urtebete baino gehiago	Inoiz edo ia inoiz ez
Antzerkia	7,2	3,5	3,7	44,4	48,5
Musika	13,7	7,2	6,5	66,2	20,1
Musika klasikoa	3,2	1,3	1,8	35,2	61,6
Egungo musika	11,8	6,7	5,2	64,0	24,1

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Nafarroako arte eszenikoen ikuskizunetara ez joateko edo gehiagotan ez joateko arrazoi nagusiak (%). 2021-2022

Arrazoiak	Antzerkia	Ballet/Dantza	Zirkoa	Musika klasikoa	Egungo musika
Garestia	2,8	1,9	0,6	3,7	9,5
Zaila da sarrerak lortzea	0,3	0,2	0,1	0,0	0,6
Eskaintza txikia nire eremuan	11,8	6,6	11,6	17,4	21,6
Informazio gutxi	0,9	0,5	0,3	0,8	0,6
Nahiago du irratiz entzun/ikusi telebistan, bideoan					
Interneten	0,1	0,0	0,1	0,5	0,9
Zaila etxetik ateratzea	1,9	0,8	0,3	1,9	4,1
Zaila ulertzea	0,3	0,3	0,1	0,2	0,2
Denborarik ez	7,8	3,7	2,8	7,2	15,8
Interesik ez	61,7	80,9	78,8	58,0	29,2
Ez du norekin joan	0,6	0,3	0,4	0,8	0,7
Birsalmentan bakarrik	0,0	0,0	0,0	--	--
Esparrurako irisgarritasun fisiko arazoak	0,3	0,1	0,1	0,4	0,0
COVIDari lotutako arrazoiak	11,6	4,5	4,7	8	16

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak..

### 3.3.- Arte eszenikoen eta musikaren arloko lehen gogoetak eta erronkak

Atal honetan, arte eszenikoen eta musikaren sektoreak gaur egun dituen erronka nagusiak identifikatzeko KZN-PVE-ko Kultur Ekintzako Zerbitzuarekin egindako hausnarketak biltzen dira.

Hona hemen identifikatutako erronketako batzuk:

## 1. Lanbide-sektore zatikatua

Gaur egun hiru lanbide-elkarte daude, baina horietako batek bakarrik funtzionatzen du modu egonkorrean, nahiz eta sektore-ordezkaritza txikia izan.

## 2. Dirulaguntzen esparrua birplanteatzeko beharra

Dirulaguntzen arau-esparruak zailtasun batzuk dakartza Foru Ogasunarekin kudeatzeko: autofakturak, urte anitzeko laguntzak, etab. Bestalde, Nafarroako Kontuen Ganberak<sup>1</sup> dirulaguntza izendunak mugatzea gomendatzen du.

Bete gabeko eskaera/beharrak batzuei erantzuteko laguntza batzuk birplanteatzea: dramaturgiak hobetzeko (zinema-arloan gertatzen den bezala, gidoiak hobetzeko laguntzak daude); hedapen-materialetarako, etab.

## 3. Toki-erakundeek garatzen duten programazioa indartzeko beharra

Programazio gehien garatzen dutenak dira, enplegua sortzen lagunduz, herritarrei kulturarako sarbidea erraztuz, etab.

## 4. Sortzaileen eta kontsumitzaileen arteko lotura sustatzeko beharra

Programa batzuk eguneratuz, publikoen fidelizazioa hobetzeko  
Bitartekaritza bultzatuz

---

<sup>1</sup> Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Publikoaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa fiskalizatzen duen erakundea.



## BIGARREN ZATIA

### 4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen

Saioaren zati honetan, hausnarketa partekatua egingo dugu bi ikuspuntutik:

**1º.** Nafarroan arte eszenikoen eta musikaren arloan dauden beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatuko ditugu

- Balio-katea oinarritzat hartuta, arte eszenikoekin eta musikarekin lotutako hausnarketa-elementu batzuk planteatzen ditugu
- Hautatu kulturean lan egitea LEHENTASUNEZKOTZAT dituzun 4 eremu
- Adierazi ZERGATIK uste duzun zailtasun/behar handiagoa dutela

Horretarako Fitxa 1 jartzen dizugu eskura  
(banakako lana + taldekako gogoeta)

**2º.** Ideia eta ekarpen MAPA BAT marratzuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko.

- Lehen identifikatu den dimentsio bakoitzerako, asmoa da taldean ondorengo galderari erantzutea: nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei?
- Zer proposatzen dugu Nafarroan arte eszenikoen eta musikaren egoera hobetzeko?

Horretarako Fitxa 2 jartzen dizugu eskura  
(taldekako lana + taldekako gogoeta)

1. Dinamika. **GOGOETA-ELEMENTUAK**, balio-katetik eta beste gogoeta batzuetatik abiatuta proposatzen ditugunak, Nafarroako arte eszenikoen eta musikaren eremuko beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatzeko. Hasieran planteatu ez diren beste gai batzuk identifikatzeko proposamen irekia (*1. fitxarekin batera joango da bakarkako lanerako*).

**Sektorearen profesionalizazioa**  
 (enplegu-baldintzen hobekuntza, prestakuntza)

**Kultura-eskaintza**  
 (eduki artistikoaren kalitatea, lurraldera zabaltzea, berrikuntza...)

**Kultura-ohitura eta -kontsumoa**  
 (publikoen fidelizazioa, bitartekaritza...)

**Balioan jartzea eta zabalkundea**

**Eraldaketa digitala, berrikuntza**

**Baliabideak eta laguntzak** (informazioa, aholkularitza, laguntza, finantzaketa)

**Proiektu eszenikoen/musikalen iraunkortasuna**

**Sareak sortzea, beste sektoreekin aliantzak** (turismoa...)

**Proiektuen arteko lankidetzak, erakundeekin, enpresekin...**

**Mugikortasun artistikoa, kanporako proiektzioa**

**Ekipamenduak, gune eszenikoak**

**Beste gai batzuk**

## 2. Dinamika. Ideia eta ekarpen MAPA BAT marraztuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko

Lehenetsitako eremua	Nola hobetu dezakegu egoera? Garatzeko/indartzeko ideiak	Erantzukizunak: garapenerako eragile nagusiak (administrazio publikoa, kultur eragileak, herritarrak, hirugarren sektorea...)
<b>Eremu 1</b>		
<b>Eremu 2</b>		
<b>Eremu 3</b>		
<b>Eremu 4</b>		

**Eskerrak** eman nahi dizkiegu Nafarroan datozen urteetako  
Kultura Plan Estrategiko bat eraikitzeko erronkan  
aktiboki parte hartu duten pertsona  
eta erakunde guztiei